

ANAITASUNA

253. zenb.

1973.eko apirilaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

DIGLOSLIA

Berria dugu alor* hau. Oso gutti sakondua eta zabaldua dago. Izena: **Soziolinguistika**, orain arte arreta* handirik izan ez duena. Egun,* berriz, sakonduenetariko bat bihurtzen ari zaigu; eta, problematika honetan murgildurik gaudenez gero, aztertzeari beharrezkoa derizot.

Soziolinguistika, begirakune* handiaz jartzen ari dena, zera da: Diglosia fenomeno. Dakusagun* zer esan-gura duen hitz honek.

Aurrenez: Herrialde edo komunitate batetan hizkuntz bitasuna behar da horretarako; baina hau ez da aski.* Hizkuntza landua, kultur maila helduagokoa, «standard» dena, idazkeran eta hezieran* ibilia dena da bata. Familian, hizketan eta kultur maila ttipiagokoa bestea.

Hizkuntz bitasunak, komunitate batetan hizkuntza biak batera erabiltzea adierazten du. Diglosiak, berriz, bien arteko sozial maila ezberdinak.

Euskal Herrian gaudenez, hemengo egoera barruan azter dezagun. Eskualde* batzuetan hizkuntz bakartasuna dago: gaztelaniaz hegoaldekoetan, frantsesez iparraldekoetan. Beste eskualdeetan diglosiazko hizkuntz bitasun bat agertzen zaigu: hizkuntz bitasuna (euskara-frantsesa, euskara-gaztelania), mintzaira biak darabiltzagulako; diglosiazkoa, aldiz,* euskara etxeko giroan gelditua egoten delako. Ekonomi erakundeetan,* maila ofizialetan eta irakaskintzan ez da erabilia. Geuk ere, garrantzizko gaiak ukitu nahi ditugunean, ez dugu euskara erabiltzen.

Diglosiak, soziologi arlo bat izanik, sustraiak ateka* sozioekonomikoan daduzka; klase burrukan, beste hitzez esanda. Hizkuntza bat landu eta ofizialtzat aukeratzean, berori zapaltzaile klasearena delako izaten da. Hizkuntza landu hori atzerritarrena baldin bada, zapaltzaile klasea beste komunitate batetakoa delarik, beroni inperialismo deritzogu. Munduan zehar ba dugu adibide ugari.

Paraguayen, esate baterako, hizkuntza landua, ofiziala, gaztelania da; baina bertako Herriak guarani darabila. Zapaltzaile klaseak, era berean, hizkuntza ezberdin bat erabili ohi du, zapalduetatik bereizteko. Herriak beste hizkuntza bat egiten zuen bitartean, Errusiako handikiak frantsesa erabiltzen zuten. «Levante»ko handikiak, gaztelaniaz mintzatuz, herriagandik bereizten ziren, bai eta Espainiako zentralisten asmoen jarraitzaileak zirelako ere.

Inperialismoak aztertzerakoan eta «beregantze* politiko» jokoan, haintzat hartzekoa doguna hauxe da: hizkuntza bien arteko kidetasuna. Hizkuntza biak erabat* ezberdinak baldin badira, «beregantze politiko» joko horrek fenomeno hau dakar: bata bestea maila guztietan ordezkatz* duela. Britainiako egoera hauxe berbera



da; bertako % 65ek ez baitakite bretoiera. Hizkuntza biek berdintasunak baldin badaduzkate edo berdin xamar baldin badira, «berenganatze politiko» joko hori hizkuntza zapaldua zatikatzerá dator, atzerriko hizkuntzá landutzat ezarri. Hauxe da hizkuntz bitasun diglosikoa, hizkuntzen hierarkizazioa.

Katalunia eta Okzitaniako egoera, esan duguna da. Hizkuntza honek (Okzitaniakoak, esate baterako) ba daduzka frantsesarekin berdintasun asko; baina, hizkera askotan zatikatua aurkitzean, frantsesera jotzen dute bertakoek.

EDITORIAL ETXEEN ARAZOA

Zenbait hilabetez gero, euskal editorialen arazoak be-reak eta bost egiten dihardu. Hor dabilta, elkarri piztiak botatzen. Beraz, koordinaziorik ezâ, beste hark zioenez.

Noski, jarrerak* ere pixkanaka sendotzen ari dira. Hura* bere jarraitzaileekin, hau bereekin. Eta jarraitzaileek burrukan zerikusi handia ukan* dute beti, edozein arlotan. Areago* arazo honetan: zenbatenaz jarraitzaile gehiago, hanbatenaz aintzinago* jo.

Euskal irakurleok, euskaraz idatziriko liburuak irakur-tzen ditugunok, bakar batzuk besterik ez gara. Editoria-len jokoa bada, elkarren arteko lapurketa bat dugu, no-labaitekoa bederen.* Irakurle lapurketa: prezioak mer-katuz, gai aproposak hautatuz eta seriozki ikertuz.*

Burruka honetan kalitatea gehitzen da. Eta publikoa garaile gertatzen ezpairik* gabe.

Baina, honen edo haren ideologia neurrira datorkie-lako, jarraitzaileek ez dute burrukatik at* geratu nahi.

Erreterian ospatu berria den Euskal Kultur Astean, nabarmen baino nabarmenago ikusi ahal ukan dugu hori. Aste honetaz ba dago zer esanik; baina oraingoan libu-ruei lotuko gataizkie, idazlan honen funtsak* hala es-katzen duelarik.

Hona hemen liburu eta disko azokan ikus zitekeena:

- dozenaren bat liburu euskara-erdaraz.
- 77 liburu erdara hutsean.
- 124 euskaraz. Hauetarik 44 bertsolaritzari buruz-koak.

Lehen konparaketa honetan, argi dakusagu* Euskal Aste honen euskaltasuna, kulturari dagokionez.

Baina ez gaitzen harri. Oraindik handiagoak ikuste-ko gaude eta! Zeren* ez baikenuen LUR editorialaren li-bururik inondik ere ikusi. Anitz* aldetara jo genuen, ho-rren zergatikoa jakin nahirik; baina pikotara* igorri* gin-tuzten aire freskoan behin eta berriz.

Horrelako jokabideek nahaspilara garamatzate.* Edo eta argitasunera? Dena dela, laguntza merkea eskaintzen diete benetako Euskal Kultur Astei.

Neure eritzia ematekotan, zera esanen nieke Erren-terriako Astearen antolatzaileei: birpentsa dezatela, «Eus-kal Astea» izenaren funtsa zertan datzan,* eta, zintzo jo-katuz, aurrerantzean izena alda* edo editorial guztiei atea zabal diezetela.

Halarik ere, ba da gauza onik Erreterria honetan; eta, Donostiako Herri Irratian antolatzaile bati entzun genion bezala, esan dezagun guk ere: «Erreterian gauza on bat ba dugu: gastronomi elkarte guztiek izen euskaldunak di-tuztela».

Zenbat Erreterria dugun hor barna!

ANTZAR

dezatela, daiela	gintuzten, ginduezan
diete, deutsee	nieke, neuskioe
diezetela, deioeela, dezaietela	zioen, inoan, esaten zuen
gataizkie, gatxakez	zitekeen, eitekean
genion, geuntsan (geuntson)	

1. orrialdetik

DIGLOSIA

Horrexegatik, gure soziolinguistikariiek prozesu hauk* aztertu behar lituzkete, eta era berean galdera hauei erantzun bat eman:

—Hemengo goi mailako klaseek erdarara zergatik jo zuten.

—Hizkuntzen ordezkatzea.

—Azken sasoi hauetako euskalkien indartzea. (Hemen oinharriturik, euskara batuaren aurka doazen jarrerak* erdaraganatze politiko jokoa daramate berekin). Nahi dutena esango dute. Egia hauxe da.

Diglosia hitz hau oso ongi datorkigu, ezkerreko eta eskuineko espainol indarrez zerbait esateko. Hauek Eus-kal Herrian hizkuntz bitasuna, teorian, oso «poliki» on-hartzen baitute; baina, praktikan, hemen hizkuntz bita-sunak diglosiatik ez duela aurrera segitzen dakusagu.* Euskararen alde indar handi bat egin behar dela egia da, egoera larri hori gaindituko badugu behintzat. Pauso hau ematerakoan, ordea, oso atzerakoiak agertzen zaizkigu, euskarâ zapaltzaile izatera iritxiko dela eta esaten baiti-gute.

Gaztelani eta frantses mailara heldu arte, euskara lantzea eta zabaltzea gure helburuetako bat izango da.

ARATZ

daduzka, daukaz, dauzka
daduzkatè, daukez, dauzkate
daramate, daroe, eramaten dute
dezagun, daigun

digute, deuskue, deraukute
gaude, gagoz
zaigu, jaku, zaiku
zaizkigu, jakuz



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako
jantzi aukeratuenak, azken
modara eginak

HURI ZAHARRA

“Casco Viejo”

BILBO

FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK

Izan berriak dira Frantziako hauteskundeak, eta berri ere lehen zegoen systemak iraungo du, gaullistek irabazi baitute. Fronte popularrekoek itxaron egin beharko dute, hemendik hiru urtetara egingo den lehendakari aukeraketararte. Beste hiru urte geratzen zaizkie, beren programa agertzeko eta orain geratzen den gobernu salatzeko, herriaren aurrean prometatutako dituen puntuak betetzen ez baditu.

Frantziak nola aukeratu du lehengo agintaritzak? Ikusten zenez, bi tendentzia zeuden; eta gainerakoek —erreformistek— bitarteko bezala jokatu zuten, baina eskuin aldera joteko posibilitate handirekin.

Tendentzia edo joera bat gaullistena eta eskuin indarra zen. Joera hau, gehienbat, goi mailako burjesiak, erdi mailakoak, burjes boxkorrek eta zenbait langile kontserbadorek defendatu dute. Honek ez du esan nahi, burjes guztiak gaullisten alde joan direnik, gehienak joan badira ere. Tendentzia honen ardatza, orain lehendakari jarraitzen denaren alderdia —U.D.R.— zen.

Eskuin indar hauek beren programa politikoa eta ekonomikoa zuten. Politika aldetik, orain egingo den gobernu berriaren aldaketa batzuk proposatzen zituzten. Ekonomi aldetik, berriz, errentaren handitzea agertzen zuten punturik funtsezkoenetakoa bezala: kantitatean nazio errenta handitzea eta haren zatiketa orain arte bezala jarrai eraztea. Erlatiboki mintzatuz, Frantziako Estatu barruan langilea orain dagoen situazio berdinean egongo da hemendik hamar urtetara, Frantziako burjes batekin gonbaraturik. Absolutuki, berriz, orain baino erostetarako kapazitate handiagoa edukiko du hemendik hamar urtetara. Nola? Alferrikako gastuak kenduz eta industrian inbertituz; edo langileria, epe laburrean behintzat, ahorratzen* bortxatuz, eta gero ahorro hoik* industrian inbertituz. Gobernuak azken joera hau hartzen badu, langileen aldetik nahiko haserre sortuko dela pentsatzen dut, eta hauk* ez direla beren kontsumoa guttitzeko prest egongo.

Beste aldetik, ezkertiarrek, politika arloan egituren* aldaketa batzuk* eskaintzen zizkioten herriari (systema presidentzialista kentzea, hauteskundeetako lege berria...) eta ekonomi arloan zenbait nazionalizazio (batik* bat bankarena) eta enpresa mailan langileen partipazioaren handitzea. Hots,* bizitzaren kalitatea hobetzea nahi zuten ezkertiarrek.

Zenbait euskaldun esperantza pixka batekin egon gara, zer irtengo* ote zen hauteskunde hauetatik. Ezkertiarrek irabazten bazuten, uste genuen, haien garaipenak alderdi onak ukanen* zituela iparraldeko euskaldunen-tzat, eta han sortzen diren arazoak beti hobeto konponduko zirela. Baina nahiarekin bakarrik geratu gara. Gauzak lehen bezala jarraituko dira.

Ezkerraren sostengu langileak eta intelektualak izan dira. Langileriak aho batez bozkatu* du fronte popularraren alde. Daraman bizimoduaren aldaketa nahi zuen, dadukan alienazioaren kentzea gura zuen, eta «impasse» horretatik irteten saiatu da. Baina, berriz ere, bulgarittea inposatu da. Boterea lortzeko, ez ote dira metodoak aldatu behar, eta ez egon beti zain, hauteskundeak noiz etorriko?

Gauza positibo bat ikusi da bozketa* hauetan: batasuna egin daitekeela ideologiaren gainetik. Denek dute gizartea antolatze eskubidea, ideologia desberdinekoak izan arren. Ideologia desberdinak onhartzen ez baditugu, dokmatismoan gabiltza, eta irtenbiderik ez zaio ikusten orain gauden egoera honi. Geure gizarterako aldaketa kualitatiboak nahi baditugu, alde batera utzi behar ditugu dogmakeriak eta zenbait «alderdikeria». Eta hola ez da gertatuko, historian zehar sarritan eta gure artean egunero jazotzen dena: iraultzaren izenean arituz,* faxismoari jokoa egiten diogula.

B. BAKAIKOA

gaude, gagoz
zaio, jako
zaizkie, jakez
zeuden, egozen
zizkioten, eutsuezan

O H A R R A

LUR editorialak, oraintsu argitaratu duen «Lau Teatro Arestiar» liburuan, ohar bat zabaltzen du testu honekin:

«Gabriel Arestik itxiak zituen Zeruko Argia eta, nola ez, Agur-eko atea. Orain Anaitasunak ere itxi bide zaizkio. Beraz, hitza debekatua du euskal aldizkarietan.»

ANAITASUNAK argitu egin behar du, ez dizkiola orain arte bere atea hitxi ez Arestiri ez beste inori. Lan batzuk argitaratu ez badira, ez da izan idazlearen izenagatik, haren lan konkretu batengatik baizik, zerabilan gaia edo modua ez baitzitzaizkigun egokiak iruditzen.

ANAITASUNA



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-1

Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar nagusiak (I)

Zeruaren ertzeko bost izar gorriak itzaltzen direnean (Arkturo eta Betelgeuse lehendabizi, eta Aldebaran, Antares eta Pollux azkenik), ilundu egiten du zeharo, eta asko tristetzen da gaua. Orduan gehiago erretzen du suak, eta gehiago butitzen urak. Denbora gelditu, eta ez da gehiago betetzen.

Gau horretan, gainera, ezkutuko* indar sakonak libratu egiten dira, eta, hauen poderioz, euskal bertsolari hilezinek hitz egiteko aukera edukitzen dute.

Batzar hauetako ohizko* sekretarioaren eritasun bat dela medio, oraingoz nik hartzen dut esaten direnak gordetzeko eginkizuna, eta munduari azaltzekoa, izan dadila denon onerako, eta gaiztoen txarrerako.

Arratsa iritxi* zenerako, ailegatuak izanen ziren guttienez bostehun bertsolari. Han ikusi nituen Neolitiko garaietako batzuk,* Erdi Harokoak (eta, hauen tartean, Santxo VII. Bortizari* hainbeste gustatzen zitzaion Etxarriko Beltza), Errenteriako Xenpelar, Musarro, Saiburu eta abar, Asteasuko Pello Errota eta Zakarra, zarpigarren mendeko Motxondo eta Usurbilgo Udarregi; bai eta ere Etxahun, Bordel eta iparreko beste zenbait bertsolari. Ez zen falta Muskariako* Iruain, Fernando Katolikoak 1512. urte goibelean gartzelatu zuena, ez eta ere oraintsu joan zaizkigun Txirrita, Urretxindorra, Zepai eta beste anitz.*

Batzar hauetara beti azkena heltzen dena, Fernando Amezketarra omen* da. Besteetan ez dakit, baina oraingoan behintzat bera ailegatu zen atzeraturik.

Batzar honetarako aginduta zegoen gaia, hauxe zen: «Mundu honetako bizimodua». Eta horretaz kantatu behar zuena, Jose Manuel Lujanbio «Txirrita» bertsolari handia. Bere 150 kilo zutitu, eta honela eman zion ihar-dunaldiari hasiera:

**Gure munduko bizimodua
guziyentzat da laburra
grina gaiztuak tiratzen gaitu
hortatik dator makurra
leku askotan ikusi ohi da
lapur guardiyan lapurra
animaliya ere igual
katua eta zakurra
berak asko nahi t'ezin sofritu
bestek daraman apurra**

Pello Mari Otaño Zizurkildarraren hitza entzun zen orduan. «Kontuan izan —esan zuen— bertso batek, ona izateko, gauza bat duela derrigorrezkoa, hori da, fantasiaren arintasuna, irudi eta imajen poetikoen bizkortasuna, kontrasteen sendotasun eta indarra. Erlea lorez lore ibiltzen ohi den bezala ibiltzen da bertsolaria ere, inongo ederrarekin gelditu gabe, gozoa laburki dastatuz.* Alferrikako hitzak —hots,* bertsoa ulertzeko behar beharrezkoak ez direnak— ez dira maiz* aurkitzen bertso onetan. Joxe Manuelek botatakoa adibide da horretan».

Gero, Txirritak berak hitz egin zuen. Bere bizimodua diru ezari oso atxekitua* egon zela adierazi zigun, eta pobre izate horretatik etorri zitzaiola hargina bezala lan egin beharra, sagardo txarro baten eskean ibili beharra, eta beste zenbait gauza itsusi. Eta segidan bertso hau bota zuen, berak pasatako larritasunak pasatzen dituzten guztiei dedikatu eta gero:

**Itsasuan zer gertatzen dan
ez al dezute ikusi
txardin berriya eta antxua**

**izurdiaren igesi
azpiyan ezin aguantatuta
gainera irten* arazi
an ere arrantzaliak pronto
beren sare eta guzi
anima salbo jende pobria
gaur olaxe gara bizi**

Atsegin handia hartu genuen entzule guztiok. Marrak isildu eta gero, Bilintzek hau aipatu zuen: «Bertsoak, ona behar badu izan, arrazoi sakona, zartadarik sendoena azkeneko estrofan gordeta etorri behar du. Gainera, aurreneko estrofeak jendea talaian jar erazi behar dute, honetarako ahal den poesia guztia erabiliz. Begira, bestela, arestian* botatakoari».

Hirugarren bertsoa bota baino lehen, Txirrita Euskal Herriko gertaera gaitz batzuei buruz mintzatu zen, eta 1876 (foruak kendu zizkiguten urtea, noski) garren urtean (...) amaitutako prozesuaren berri eman zigun. «Handik honantza* gauzak ez dira asko aldatu» esan zuen triste. Besterik gabe, orain jartzen den lanturua* kantatu zuen:

**Kolka* txarraren azpiyan dauden
txito urrikalgarriyak
amarretatik bost hiltzen dira
beste bostak elbarriyak
pizti gaiztuen beldurrez beti
gora begira jarriyak
indar gutxiko gorputzak eta
suspiriyuak berriyak
kastigu onen menpian bizi
gera gaur Euskal Herriyak**

Oraingo honetan hitz egin zuena, Erdi Haroko Antton Kiskurra bertsolaria izan zen. Honen aburuz,* egungo bertsolari asko klitxe batzuek baliatzen omen dira, kantatzeko orduan. «Ene ustez, bi bertso ez dute behin ere berdinak izan behar, beti ekarri behar dute berekin gauza berrien freskura. Puntu eta irudi bitxi eta bereziak ez badira bilatzen, hitzak gastatuz eta zimelduz joanen zaizkigu, bertsoak beren magia eta misterioa galduz, eta bertsolaritzak labana amustu baten antza hartuko du. 'Herria' eta horrelako hitzak ez non eta ez han erabilizteak (hots, harira datozen ala ez kontuan hartzeke*) gaitz egiten dio bertsolaritzari», oihuztatu* zuen Elduaie-neko bertsolariak.

Nola giroa asko seriozu zen, Txirritaren ingurukoek «bertso txar bat egiteko» esan zioten, «ea horretarako gauza zen», eta beste gauza barregarri asko. Lujanbiok honela kantatu zuen:

**Bart arratsean Panplonan
ginaden feriyen
Etumetako artzaiak
sermoia debalde
ernari jarri omen dek
Aizarnan idiya
ai zer esne eratea
batere ez balu
nere txapela tellatuan
ala Jaungoikoa**

Eta algara batean, batzarrari bukaera eman genion.

BERNARDO ATXAGA

Neure lantokitik

EKONOMI MAILA IGOTZEAN

“Per capita” errenta apalagoa genuenean, bilbotar erdaldunek “un chiquito” eskatzen zuten tabernetan.

Orain, errenta hori europar mailarantz abiatu denez, finagoak egin dira gure ukroniarrak, eta “un vino” eskatzen dute, erdaraz, eta “agur” esaten dute euskaraz, irteterakoan.*

EUSKARA BATUA

Lehengo egunean, banku batera joan nintzen, arazo bat konpontzera.

Leihatilaren* atzean mahai handi bat zegoen. Haren inguruan jezarririk bulegolari* bi zeuden, hauetariko bat nire ezaguna.

Neraman arazoa garbitu ondoren, nire ezaguna zèn bulegolariak zera esan zerautan:

“Xabier, zenbat euskara batu daude? Dakizunez, nik ez dakit euskaraz; baina ikasten ari naiz, eta nire kasu berebean dago aurrean dadukadan laguna. Ni “Euskalduntzen” metodoarekin ikasten nabil, eta nire laguna Altunarenarekin. Guk, euskara batua bat zela uste genuen; baina, zoritxarrez, hainbat desberdintasun aurkitzen dugu liburu bion artean”.

Gai hau erabiltzearren, gertakari hau neuk asmatu dudala inork pentsatzen badu, oker dago. Martxoaren 15ean gertatu zitzaitan Bizkaiko Aurrezki* Kutxan, Bilbon duen Bulego Nagusian.

Bulegolari horrek arrazoa duela uste dudanez, galdera hori neurea egiten dut.

Zergatik ez dugu guztiok euskara batu BAKAR BAT erabiltzen?

Eman biezagu Euskaltzaindiak bide BAKAR BAT, eta jarraiki diezogun GUZTIOK.

LURLANGINTZA

Gure baserritarrek lur-langintzaren bidez hainbat janari lortzen dute guretzat. Baina irakurri dudana egia bada, laster Euskaltzaindiak beste izen bat sortu behar du (“aidelangintza” ote) etorkizuneko baserritarrentzat.

Urte batzuen buruan, landareak ez lur-rean aidean baizik erein eta haziko ei* dira, hezetasuna,* beroa, argia eta azido karbonikoa medio direla. Lagungarri hauekin prozesu biokimikoaren fotosintesia —hots,* fruituen sorketa— lortuko omen* da. Aurretiaz* plan-gintza zehatz bat eginik, gizonak berak zertuko du hau guztia, eta berak erabakiko du zenbat erein behar den eta nolako eta zenbaterainoko uzta* komeni den.

Beraz, etorkizuneko soroak* aidean esekita* egongo dira; eta emango dituzten fruituak, lurrekoak baino

askoz ugariagoak izango dira. Adibidez, orain arte egin-dako entseuetan lorketa hauk egin dira, metro karratuko: 33,6 kilo aza, 30,5 kilo zanahoria, 26,6 kilo erremolatxa* eta 28,7 kilo tomate.

90 egunetan, 300 gramo barazki* lor* daitezke egunero metro karratuko: hots,* lurrik hoberenean eta teknika onenarekin erdiets* daitekeen baino hamar aldiz gehiago.

EUSKAL HERRIKO GIDALIBURUA

Salgai dago liburutegietan Euskal Herriko gidaliburu. Haren prezioa 200 pezeta da, eta hona hemen azaleko irudia.



INFORMACION TURISTICA

GUIA DEL PAIS VASCO GUIDE DU PAYS BASQUE BASQUE COUNTRY GUIDE-BOOK EUSKAL-HERRIKO GIDALIBURUA



EKONOMIAZKO BI BERRI

● “Banco de Bilbao” diru etxeak “Normas del Impuesto General sobre la Renta” argitara berri du, eta dohainik* zabaltzen du bere bezeroen* artean.

● “Sociedad de Cartera” izeneko 160 elkarte daude Hazienda Ministroaren baimenaren zain. Hone-lako elkarte bakoitzaren domu* minimoa 200 milioi denez, honek esan nahi du, 32.000 milioi pezeta dau-dela Espainiako Boltsetan inbertitzeko prest.

XABIER GEREÑO

biezagu, **beisku**, bezaigu
dadukat, **daukat**
daude, **dagoz**
diezogun, **deiogun**, dezaiogun
neraman, **eramaten nuen**
zerautan, **eustan**, zidan
zeuden, **egozen**
zitzaitan, **jatan**, zitzaidan

Gure Munduko Albisteak

Liburu berriak

«Lau Teatro Arestiar», Gabriel Arestik, LURen.

Joan den hilabetean izen horrekin eman du argitara Donostiako editorial ezagunak G. Arestiren lau teatro lan, denak EGANen orrialdeetan jadanik* agertuak. Hitzaurrea, oso euskara «pitxi» batez eta agian* aurreko bati fama kentzeko goz egina, R. Saizarbitoriari zor zaio.

Liburu honetako gauzarik harrigarriena, edo eta harrigarrietako bat behintzat, azken azaleko oharra dateke.* Arestiri besteek ateak hertsu* (bide*) dizkiotela dioen editorial batek, ba dirudi autore horren gauza berririk eskaini beharko zukeela, zeren liburu horretako lanak jadanik publikatuak baitziren.

Eskaizko: *Aresti, Gabriel*; «*Lau Teatro Arestiar*»: LUR edit., Donostia, 1973.

«Itsasoa ur-bazter luzea da», Martin Ugaldek, GEROn

Apirilaren hasieran heldu zaiku, GERO editorialak bidalitako Martin Ugalderen lehen euskal nobela hau. Itxuraz apaina benetan, Karlos Bizkarrondoren azalaz. Gutxi esan behar dugu mamiaz, zeren,* agertzen denez, literatur obra egiazko batek behar duen gauzarik printzipalena falta baitu, hots, egileak berak moldatua izatea, euskal itzulpena Dionisio Amundarainek oso ederki egin baitio.

Martin Ugaldek, noski, hari eta bilbe* ederra topatu du, eta, ikusten denez, sakona. Inork euskaratua izateak, ordea, nobela eta osterantzeko ipuinez geure kritzia ematea galerazten derauku.

Uste dugunez, Ugalde jaunak ba daduzka meritu eta ahalmen aski* beragan, bere kabuz* euskarazko nobela bizkain bat egiteko, zeregin hori besteri utzi gabe. Zain gaduzka, ba.

Eskaizko: *Ugalde, Martin*: «*Itsasoa ur-bazter luzea da*»; Gero, Ed. El Mensajero, Bilbo, 1973.

«Laminzulo»: gaztetxoentzako errebista

JAIMES-LIBROS S.A.k haurrentzako mentura* errebista sorta bati eman dio hasiera *Laminzulo* izeneko liburuxtoaz. Euskal itzulpena, oso ona eta euskara batuan, Joxe Mari Sartrategi jaunari zor diogu. Aspaldian sentitzen zen gure artean honelako obren beharra; eta ez dugu dudarik egiten, nafarren eskutik heldu zaikun lehen zenbaki honi ikastoletan harrera onik eginen dietela.

Okerrak zuzenduz

Aurtengo urtarrilaren* 30eko ANAITASUNAn, Euskaltzaindiak egiten diharduen Ikastol Hiztegiaren berri eman genuen. Hartako batzordearen gidaritzat Karlos Santamaria eta Xalbador Garmendia jaun langileak aipatzen genituen; baina ahantzi* egin zitzaikun —eta horregatik, bidezko denez, gaur hura zuzentzera gatoz— batzorde horretako euskaltzain oso eta zuzendaria Aingeru Irigarai jaun mediku jatorra dela adieraztea.

Barka biezagu, beraz, Irigarai jaunak, haren izenaz ahantzi baginen, ustekabean izan zen eta.

Herritiko oihartzunak: Ezkontzak

Atsotitz* batek ba dio «esaera zaharrak gezurrik ez dio»-ela; baina ba dago bat gutienez, inork sinesten ez duena, eta arrazoiz. Maitasunak, hain zuzen ere, ez dio kasurik egiten atsoen esanari eta bide guztiak leuntzen ditu.

Ezkontzak direla eta, aipatu behar dugu hemen, hilabete honetan gertatuak.

Apirilaren 13an, Begoñazpin, *Jose Ramon Etxebarria Bilbao* injinadore eta idazkide gaztea eta *Lorea Akaiturri Urrutia* idazkari* eta euskal irakasle xarmanta* ezkondu egin dira Bilbon.

Era berean, atzo, apirilaren 14ean, *Jose M. Castell Artetxe* donostiar abokatu ezaguna eta *Itziar Mitxelena M. de Ilarduia* erreteriar neskatala polita ezkondu dira Oiartzunen. Dakigunez, Itziar, bere aita Luisen hildoari* jarraikiz, Philosophia-Letretan lizentziatua da.

Zorionak ezkonberri guztioi eta urte askotan!

Nafarroaren lege nortasun berria

Ohi ez bezalako albistea da berau. Oraintsu onhartu den erabaki baten bidez, Nafarroako Diputazioa Espainiako Gorteen* ez bezalako botere juridiko batez horniturik gelditu da; eta horren bidez, Diputazioaren baimenik gabe, ezin dagiekete Madrilgo Gorteen* batere ukiturik nafar lege zibilei.

Beste pauso bat, ahizpa nagusiak emana. Jator eta zuhur agertzen zaizkigu nafarrak aspaldion beste euskaldunoi. Ongi merezia dute, dakusagunez,* *Nauarra, caput Vasconiae* delakoa.



Nafarrak tabako gehiago hazi nahirik

Nafarroako berrogei eta lau munizipiok interes berezi bat agertu dute 73-74. urteotako tabako hazkuntza honetan. Izan ere, tabako landarearen prezioa, agertzen denetik, %20 batez altxatuko omen da; eta, horregatik, Nafarroan orain tabakotan hartzen diren 600 toneladak, segur asko, gora joanen dira.

Iruineko Tabako Ontze Zentrutik ihaz 100.000 tabako bidali ziren Andorrara, berau azken hamabost urteotako uztarik* xarrena izan arren.

X. Kintana LURetik irten da

Ongi konfirmatua da eta bide ezin zuzenago batetik dakigu, Xabier Kintana idazleak LUR editoriala utzi duela. Antza denez, irteera honen kausa zenbait gaitan zedukan eritzi ezberdintasuna izan da.

Bilbotik... maitasunez

Agian,* lan Fleming-en antzera, **From Bilbao, with love** delakoa ezarri beharko nukeen; baina beldur naiz ez ote dugun euskaldun gehienok —ni ere tartean— ingeles guti jakinen, halako batzuen unibertsalismo berezi hori gorabehera.*

Amatiño adiskideak «ohoratu» egin gaitu bizkaitarrok apirilaren lehen eguneko ZERUKO ARGIAtik, eta bereziki lerro hauen egilea, «hizkuntzalari» eta guzti deituz. Eskerrik asko.

Funtsean ados gaude berarekin: hots,* ez da ez aski,* herri baten izena zein den jakiteko, bertakoen nahia horrela edo hala dela esatea. Hala ere, Bilbo izenaren kasuan aipatzen genuen arrazoi ez zen bilbotarron gogo bakarrarena, baizik eta bizkaieraz mintzatzen den leku guztietan (Deba arroan* ere, noski) eta are* Gipuzkoako beste toki askotan ere horrela esaten delakoa. Bilbotik urrun eta hiri horrekin tratatu zuzenik ez duten euskaldunen zeresanak balio eskasa du, zeren* berauek dakiten izena erdal izen ofiziala izaten baita. Beste horrenbeste gertatzen da, Donostia edo Iruinea izenekin, bizkaitar askorentzat, zorixarrez, San Sebastian eta Pamploa besterik es direnak, bai eta euskaraz ere.

Phonetika aldetik, **ardao** hitza **ardo** bihurtu den bezalaxe, **Bilbao** zaharra gaurko **Bilbo** modernoa bilakatu* dela esanenu genuke, nahiz eta ingelesentzat **Bilboa** izan (euskarazko **Bilbo(r)a**-tik ote?). Dena dela, eta honetan ere Amatiñorekin bat gatoz, Euskaltzaindiak izen hauzi hauk* konpontzeko duen batzordearen erabakiak onhartuko ditugu geuk ere, nahiz eta... guk Bilbo nahiago.

Eugenio Coseriu hizkuntzalaria Bilbon

Martxoaren azken astean Eugenio Coseriu errumaniar hizkuntzalari famatua Deustuko Unibertsitatara etorri izan zen, latinetik hizkuntzen problema berezietan eta linguistik eskola ezberdinen inguruan mintzatzeko.

Entzule ugari bildu zen hura entzutera, zahar eta gazte; baina gehienak bertako unibertsitariak ziren. Eskaini zerauzkigun hitzaldi zoragarriak ez ziren gutiagorako izan, halafede. Hargatik jakin genuen, beste gauza askoren artean, gure artean aspaldidanik gora eta behera erabili den puntu bat —hots, *metalingoaiarena*— jadanik S. Agustinek berak aipatzen zuela, latinez, jakina: *Verbum et uerbum est et uerbum significat* (= hitza hitz da eta «hitz» esan nahi du). Dirudienez, apaizgaitzietan ere Linguistika erakutsi izan da orain arte, inor kontratu ez arren.

Euskaltzain berriak

Euskaltzaindiko prentsa bulegoko* agirian dakusagunez,* Euskal Akademian laster euskaltzain laguntzaile berriak izendatuko dira. Memento honetan, oso oker ez bagaude, 24 euskaltzain oso eta ehun eta berrogei eta hamar euskaltzain laguntzaile inguru daude izendaturik; baina, hileroko bileretara zenbat lagun joaten diren ikustean, inork ez luke horrenbeste direnik pentsatuko. Lan egiteko batzordeetan, aldiz, oso euskaltzain guti azaltzen dira, **Euskera** (Euskara, noizko?) aldizkariaren organigraman ikus daitekeenez.

Ba dakigu Euskaltzaindiaren historia eta gorabeherak inguruak* eta giroak horretaraturik daudela, eta horregatik, «lehen hala behar zelako», hainbeste laguntzaile daudela Linguistikan eta Literaturan ondo jantzirik ez daudenak; zenbait, politikazko arrazoiengatik sartuak eta, halako kasuren batetan, galnera, ba dira euskara ez dakiten euskaltzain batzuk ere. Hala ere, jaun horietako askok —bai eta azkenetarikook ere— paper mesedegarri bat bete dute euskararen eta Euskaltzaindiaren onerako, eta zeharo justifikagarri izan da haien izendapena orduko zirkunstantzietan. Baina beste alde batetik ba daude beste zenbait lagun, Euskaltzaindiko lan batzordeetan sekula parte hartu ez arren, hortik zehar, jendaurrean Linguistikarekin (eta zentzuarekin) oso zerikusi guti duten gauzak esaten ibili eta ibiltzen direnak, beren hitzei pisu haundiagoa emateko, azkenean, «Euskaltzaindiko batek esanik» delakoa gehiturik. Duda gabe, ez diote berauek mesede handiegirik egin gure Herriko erakunderik* printzipaleneri.

Gaitza, ordea, euskaltzain izateko «kultur baldintza objektibo» batzuk* ez edukitzean datzala* uste dut; eta, denbora joan gi-

noan,* Linguistikaz eta Literaturaz kanpoko arrazoienez sarturiko euskaltzainek gero eta kalte handiago bat egingen diote Akademiari, beren jakituririk ezaz publikoki lotsa eraziko baitute. Honetaz nahikoa ikusiak gara orain arte.

Bestetik, kanpoko linguista bat (txeko, polako, ingeles edo amerikarra) izendatzea ez deteke* harrigarri, hori ohore gisa* egiten baita; baina Euskal Herrian bizi ez den bat —nazioarteko harremanak eramateko izan ezik— edo bere eskualdeko errepresentatzailetzat, bertan bizi ez den euskaldun bat hautatzeak zentzurik gabekoa dirudi, efikaziari degokionez. Nahikoa esku geld* dago gaur egun ere Euskal Akademian, holako gehiago ere sartzeko. Barruan daudenak, noski, ezin kanpora daitezke, baina horrelako berri gehiago ez sartzeko beharrezkoa dela uste dugu; aski* litzateke, horretarako, sartzan den berri bakoitzari zeregin edo betebeharrak bana ematea, benetan lan egitera sar daitezen.

Euskaltzaindiak pertsona karreradunak behar ditu, eta Linguistika eta Literatura inguruko estudioetan espezializatuak bereziki, edo bestela literatur lan aipagarri batzuen agileak. Artistak, kantariak, bertsolariak, pintatzaileak eta abar, nor bere sailean oso ona izan arren, ez dira, ene eritzi, batere pertsona aproposak euskaltzain izateko, flamenko kantariak edo mariatxiak Erdal Akademiarako egoki ez diren bezalaxe. Ba liteke, ordea, baten batek **Euskaltzaindia is different aipatzea**. Osterantzeko* akademikoak, pertsona eragileak edo erakunde lanetan trebatuak, bai eta letretan karreradun ez diren laguntzaileak ere, beharrezkoak dirateke,* baina beste maila batetan.

Euskaltzaindiak, euskaltzain berriak izendatzeko orduan, segur aski, pentsaturik eta ongi mamurturik* edukiko ditu hauk eta hauen gisako kontsidero* batzuk. Hala ere, nik neuk, osterantzeko jendearentzat ez dut uste gaizki dagokeenik holako puntuok hemen aipatzea.



Marlon Brandori zorionak

Marlon Brando ezaguna genuen, Estatu Batuetako beltzen eskubideen alde zerañan jokabide jatorragatik. Ez genekiena hauze zen, Ipar Amerikako indiarren kasuan ere berdin aterako zela.

Dakigunez, *The godfather* (aitabitxia) izeneko filmean erabilitako paper bikainagatik *Oscar* bat eskaini diote oraintsu Hollywood-en; baina, *Wounded Knee* (Belaun zaurtua*) herri burrukan dauden 300 siuxen alde egitearren, ez du sari hori hartu nahi ukan,* horrela Estatu Batuetako giza eskubide ezberdintasunagatik protesta eginez.

«Tango» jaunak ederki jo die askori adarra honetan, gurinik* erabili ez arren. Beldur gara, ordea, ez ote den berau horregatik izanen haren egiazko «Azken tango».

ARMENDARITZ

biezagu, **beisku**, bezaigu
dagiekete, egin diezaiekete,
egin **deiskioee**
daduzka, **daukaz**, dauzka
daude, **dagoz**
derauku, **deusku**, digu
die, **deutse**
diete, **deutsee**
dio, **deutso**
diogu, **deutsagu**
diote, **deutsoe**
dizkiote, **deutsoez**

gaduzka, **gaukaz**, gauzka
gaude, **gagoz**
zaiku, **jaku**, zaigu
zaio, **jako**
zaizkigu, **jakuz**
zedukan, **eukan**, zeukan
zeraman, **eramaten (eroaten)**
zuen
zerauzkigun, **euskuzan**, zizkigun
zitzaikun, **jakun**, zitzaigun
zizkieten, **eutseezan**

"EUSBEL" DORREA

Aspaldiko mendeetan dorrez beteta omen zegoen Bolonia. Oraindik ere tente diraute banaka batzuek. Inork argitzen ez baldin badizu, nekez asmatuko duzu zertarako jaso zituzten dorre luze eta bakarti hoik.* Baina ba du bakoitzak bere izena. Boloniako familia nagusiak, zein baino zein haundiagoak zirela adierazteko, zein baino zeinek dorre luzeagoak jasotzen lehiatu* omen ziren. Horrela agertu nahi zuten beren nortasuna... Eta hantxe daude gaur oraindik haien haundi ustearen oroigarri* eta gorde nahi zuten ohorearen lekuko.*

Euskal Herrian, nik dakidanez, ez dugu horrelako megalomania-rik izan. Eta gure herrietan ez da dorre aipagarrikeri ageri, Zarauzko «Torre Luzea» ezik; baina honi, beronen izen eta edertasun eta guzti, ez diot nik inoiz dorre antzik hartu. Baten batek esango dit esan, kanpandorreak ugariak ditugula geure herrietan, elizei jositara, eta hoiexetan azaltzen dutela hain zuzen gure elizek beren berezitasunaren eta apaintasunaren neurria. Bego! Eta beude dorre hoik,* nahi duenaren harrotasunaren asegarri baketsu. Boloniako dorreen eta gure eliz dorre hauen artean antzik aurkitu nahi duenari, neuk esango diot, horren lasaigarri eta pozgarri, Boloniak eta Baskoniak ba dutela, bai eta ere, nolabaiteko antzik, nire belarrietarako behintzat.

Nik neuk, Baskoniako eta Boloniako Harrizko dorre hauei baino kideasun haundiagoa aurkitzen diet, euskaldunok geure kontzientzi-pean daramazkigun «Euskonia» eta beronen dorre mitozkoei eta aintzina bateko Herri eta dorre mitozkoei. Ez dakit, euskaldunok inoiz dorre mitorik sortu dugunik; ez dut gure Barandiaranen liburuetan irakurri. Baina, beharbada, inork asmatu gabeko dorre mitoren bat geure barne barnean daramagula esango nuke. Eta bidezkoa litzateke, gure «mito artertzailak» hori ere azalduko baligu... Agian* dorre mitoa baino areago* dela agertuko da: hau da, dorre mitozko baten konplejua, gaur oraindik bizi bizirik dugun konpleju trajiko bat, aintzinako Herriaren eta honen dorrearen mitoa trajikoa izan zen bezala.

Aintzina batean omen zen, bada. Asiako ibar zabaletan zehar giza talde bat zebilen... Ez bide* zuen ez sorbururik, ez historiari, ez lurralderik. Baina hantxe zebilen Asiako ibar zabaletan. Halako batean jabetu omen ziren, taldeko guztiek hizkuntza bat bakarra mintzatzen zutela. Beraz, ba zuen nortasun eta batasun bat giza talde hark. Harritu ere egin ziren harritu. Eta kontzientzia berri hori betirako finkatzeko, eta aurkitu berri zuten batasuna gordetzeko, izen haundi bat eman nahi zioten taldeari eta oroigarri eta gordailu* bat eraiki. Zerurainoko dorre bat jasotzea asmatu zuten, bada, aurrerantzean Asiako ibarretan batetik bestera ibili gabe, dorrearen inguruan bizi zedin taldea.

Ekin* zitzaizkion dorrea jasotzeari: mitozkoa zen dorrea eta ez harrizkoa, historiak ez baitzion giza talde hari harririk eman. Eta, inork zergatik ez zekiela, hantxe gertatu zitzaizen ezbeharrak. Batek mito bat esaten zuen, eta besteak kontrakoa: mito pilo bat bildu zuten, baina ezin dorrea jaso. Bertan behera sakabanatu zen giza taldea... Eta ez izen, ez dorre, ez nortasun eta ez talde geratu zen. Eta bere hizkuntza ere galdu egin zuen giza taldeak!

Aintzinako dorrearen ezbeharrak bizi dugu euskaldunok ere, geure dorre ametsak, mitoak eta konplejuak jota.

Behin batean jabetu ginen euskaldunok, hizkuntza bat genuela, geure kultura eta historia ere ba genuela, lurralde hau geure genuela: Herri bat ginela! Ba genuen, beraz, geure nortasuna eta batasuna. Pozgarria eta pizgarria izan zen gure kontzientzia berri hau.

Eta horra hor non hasten garen dorre bat asmatzen, geure kontzientzia hori sendotzeko. Lehen bai lehen monumentu haundi bat eraiki nahi izan genion geure Herri aurkitu berri honi: gure nortasunaren eta batasunaren sinbolo eta oroigarri izan zedin. Dorre-gaztelu bat jaso nahi genion geure Herriari..., horren bidez adieraziko bai genuen geure nortasun kontzientzia eta betirako finkatuko geure batasuna.

Mitozkoa zen egin nahi genuen dorrea. Geure hizkuntza erabili eta bizkortu beharrean, geure kultura indartu beharrean, geure lurraldea landu eta txukundu beharrean, mitozko bihurtu nahi genituen, historiaren hibaitik kanpora ateraz. Behin eta betikoa nahi genuen

lortu berria genuen herritasuna, eta dorre luzearen puntan jarri geure batasuna, inork urra* ez zezan. Baina ez ginen ohartu, herri mitozkoa, histori barnera sartzen denean, txikitu egiten dela, meteorito bat bezala. Hala ere, guk dorre mitozko horixe nahi genuen geure ametsetako «Euskonia» mitozkoarentzat.

Gordailu bat nahi genuen, geure nortasuna godetzeko. Geure Herri batasunari hesiak ezarri, inondik zula ez zedin. Baina irekitzen ez den nortasuna eta hedatzen* ez den batasuna, ito egiten dira. Hala ere, dorre batetara sartu nahi genuen guk geure Herria,

Eusbel izena jarri genion geure ametsetako dorreari, hortxe eutsi nahi baikenion geure batasun kontzientziari: lotu eta kontrolatu egin behar genituen geure Herri kontzientziaren indarrak. Geldia nahi genuen geure Herri batasuna. Baina Herri batasun geldia usteldu, zatikatu egiten da; batasuna eta batasun kontzientzia ez baitira buruan asmatu eta gordetzekoak, eginean egitekoak baizik. Hala ere, guk Herri batasuna kontzientzia berri batez lortua genuela uste genuen; eta, horri eusteko eta begiratzeko, **Eusbel** dorre luzea jaso nahi genion geure Herriari.

Eta, **Eusbel** dorrea jasotzen ari ginela, gure ametsetako batasun mitozkoa Herri zatikatua gertatu zitzaigun. Porrokatu* egin zitzaigun geure dorrea, eta... ez nortasun, ez batasun, ez kontzientzia, eta ez Herri gelditu ginen.

Guzti hau, nik ez dakidan garai batetan gertatu zitzaigun, beharbada ez-garai mitozko batetan. Harez gero, mitozko dorre haren konplejuak jota edo, dorre mania sartu zaigu euskaldun guztioi. Eta nik dakidan garai batetan, **Eusbel** dorreak jaso eta jaso ari gara geure Herriari. Ez dira harrizkoak ez mitozkoak dorre hauk,* ideiazkoak baizik; guk harriak ideiak balira bezala eta ideiak harriak balira bezala erabiltzen ikasi baitugu. Eta ideiazko dorre hauk, mitozko **Eusbel** dorrearen trajediak jota, porrokatu egiten dira, gure Herri batasunaren zorigaiztorako.

Gure Herrian ba dira batzuk, besteak baino argiagoak; eta laster jabetzen dira, zoritxarreko Herri sakabanatu honek ba duela hizkuntza bat, kultura eta historia bat; batasun eta nortasun bat duela. Eta horra hor non hasten diren, bakoitza bere aldetik, lehiak Herri honi sinbolo eta oroigarriak eraikitzen: dorre luzeak jasotzen; batasun kontzientzia berpiztu behar baitzaio Herri honi, eta eutsi. Geure ametsetako dorre honen ingurura bildu nahi dugu Herri osoa, honen batasunari eutsi eta begiratu ahal izateko. Bakoitzak Herri osoa bildu nahi du, hori bai!, bere etorkizunerako dorrea jaso dezan, benetan Herriaren dorrea izan dadin.

Baina betikoa gertatzen zaio Herriari: harginak ideia bat eskatzen du, eta peoiak kontrakoa ekartzen; eta ideia pilo horretan burrukan hasten da gure Herria. Dorrearen orde harri pilo! Eta euskaldunok ez hizkuntza, ez kultura, ez lurralde eta... ez Herri! Herriaren nortasuna ez baita mitifikatu eta ideiazko dorre batetan gordetzeko, historian eta egunero egitekoak baizik; eta Herriaren batasuna ez baita ideiazko dorre luze baten inguruan hesitu eta lotzekoa, berorren dinamikaz indartzekoak baizik.

Bitartean, hor goaz, hor gaude, mitozko **Eusbel** dorrearen konplejuak eta zoritxarrak jota, harik eta Herri honen nortasunak eta batasunak ez dutela ideiazko **Eusbel** dorrearen beharrik, eta bai ibar zabal batena, gu konturatu arte.

PAULO AGIRREBALTZATEGI

baligu, **baleusku**, balerauku
beude, **begoz**
daramazkigu (daramatzagu),
daroaguz
dezan, **daian**
diet, **deutset**
diot, **deutsat**
dit, **deut**, deraut
dizu, **deutsu**, derautzu
genion, **geuntson**
zaigu, **jaku**, zaiku
genituen, **genduzan**

zaio, **jako**
zezan, **eian**
genituen, **genduzan**
zaigu, **jaku**, zaiku
zaio, **jako**
zezan, **eian**
zion, **eutson**
zloten, **eutsoen**
zitzaien, **jaken**
zitzaigun, **jakun**, zitzaikun
zitzaizkion, **jakozen**

“Santxo Azkarra”

Pastorala

Aurtengo apirileko azken igandean, 29an, ba dugu euskaldunok eta euskaltzaleok berri on eta pozgarri bat. Altzai-Lakarriko herriek ikusgarri balios bat muntatu nahi izan daukute, usu* eta maiz* ikusten ez den horietako bat. Aspaldixko hasiak ditugu antolaketa eta entseiatan. Haiak luzaro lanean ihardun ondoren, lasaiki gozatu ahal izanen dugu Altzaiarren artistasunaz, dantzez, boz ederez eta ikusle guztioi eginen daukuten ongi etorriaz.

Pentsatu beharko dugu, alabaina,* zer indar ezkutuk,* zer amodiok, herritasun eta herri kulturak bultzatzen dituen Zuberotarrak, hain lan haundi eta luzez, anitzetan* behar aina* publiiko bil eratzen ez duten ikusgarriok muntatzen.

Dagoeneko,* irakurle, ohartu zarateke* zertaz mintzo naizen, zer dudan pentsamenduan: Zuberoko pastorala.

Ba dituzu hiruzpalau urte, azken pastorala egin zenetik. Pastoral hura* Berterretx izenekoa zen eta Zuberotarrak arras* ongi jokatu. Pastoral ez da, maskarada bezala, hain erraz egiten den ikusgarri bat, entseiaz hiru bat-hilabetez aritzea behar baitu, igande arratsaldeak barne direlarik. Hori ikusi ahal izan genuen, Alzain izan ginen azken igande arratsalde.

Baina aurtun jokagai duten pastoralak, ba du beste tarik zerbait berezirik: Nafarroako Santxo Azkarraren pastorala dela. Gure erregea gai harturik muntaturiko pastorala. Pastoral honek argiro erakusten dauku azken urteotako Zuberotarren sentimenduen norabidea. Pastoral hau, oro* har, abertzale dela esanen nizuke. Nafarroako erresuma edo erreinuaren guduak, arriskuak eta herri minak agertzen dauzkigulako. Atzerriko gauzez sobera* axolatuz,* Santxo Azkarrari etorri zitzaizkion zorrigaitzak ikusten ahal ditugu.

Zuberotarrak gure zain daude. Gu, behintzat, dudarik gabe, saldo* haunditan joanen gara, pastoral horren ikustera.

ERRAMUN GERRIKAGOITIA

daude, dagoz dauzkigu (derauzkigu), deuskuz,
dauku (derauku), deusku, digu dizkigu
daukute (deraukute), deuskue, nizuke, neuskizu, neraukezu
digute zitzaizkion, jakozan



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

“Giza-Bizia”:

Karlos Goena

Liburu aipagarria, benetan, Karlos Goenak eman diguna! Euskal Herri osoak probetxu haundia aterako du horretatik, bai horixe!

Aurrerakoan sendagileek ba dute nora jo, medikuntzako gaiak euskaraz azertu nahi badituzte. Eta medizinarik ikasketak egiten ari direnek ere liburu horretan oinarri on bat aurkituko dute, beren euskal hiztegia osatzeko.

Goenaren «Giza-bizia»k sendakuntza alorrean* bidea ireki du. Denboraren denboraz beste sendagileek beren espezialitateaz bide horren zola sendotu eta galipotaztatu beharko dute.

Liburu honek ikastoletan ere aspaldiko zulo bat bete dezake. Arian* arian ohitu behar dute haurrek bizitzaren alderdin guztiak euskaraz adierazten.

Herri xumeak* ere ez du ezer galduko liburu hori irakurriaz. Baserrietan ibili naizenean, sarritan ohartu naiz, eritasun* gorabeherak aipatzean* euskaldun hutsek ere erdal hitz asko erabiltzen dutela.

Ez da harriztekoa: baserriarrek, gaixo direnean, kalera jaitsi behar dute, eta han medikua erdaraz mintzo* zaie. Eta sendagileak berak euskaraz badaki ere, ez da faltako gaixozainen bat, erdaraz bakarrik hitz egingo diena.

Gezurra badirudi ere, baserrietako emakumeek, euskaraz egitean,* noiznahi sartzen dituzte «partua», «enbarazua», «estaduan» eta horien antzeko hitzak. Animaliez ari direla, ordea, euskara garbian iharduten dute.

«Giza-bizia»k guztioi oroiteraziko digu, gauza horik* denok euskara jatorrez esan daitezkeela, eta bai eta lehenago ezagutzen ez genuen beste hitz asko ere.

Orain arte geure artean erdaraz egiteko izan dugun atxakia bat, hau izan da: ezin omen* zen goi mailako gauzarik euskaraz azertu, beharrezko hitzen falta genuelako.

Poliki poliki eragozpen hori menderatzen ari gara. Aita Mugikak lan ederra egin zuen bere hiztegi mardulaz. Hemen datorkigu orain Goena. Jose Ramon Etxebarria teknikako hitzak antolatzen ari zaigu, Joseba Intxausti filosofiazko hiztegia egitegotan ari da, Arestik enziklopedi lanetan dihardu, Donostiako talde bat aspaldi dabil «Duden» alemana euskaratzen...

Berri pozgarriak, zinez.* Zientzi gaiak euskaraz ez baldin baditugu harrotzen, ez da euskararen errua izango, gurea baizik.

GOTZON GARATE

dezake, daike zaie, jake
die, deutse zaigu, jaku, zaiku
digu, deusku, derauku

«Oskorri» taldearen heriotzea

1971. urteko martxoan sortu zen «Oskorri» taldea, bertan parte hartzen zutenetik batzuek lehenagotik lan egiten bazuten ere; 1972. urtean jende berriaz gehitzen da, eta formazio berri honekin, musikagintzaz gainera, teatro lan bati ematen dio hasiera.

Oraintsu, eta zenbait arrazoi desberdin direla kausa, taldeak bere desegitea erabaki du. Inondik ere ez dezan inork gaizki-ententurik gertaera honetatik atera, «Oskorri» taldekook geure azken bileran ohar hau jendartera iragartzea erabaki dugu.

Gure arteko batzuk, hala ere, orain arteko bizkortasun berberarekin saiatuko gara geure euskal jendearen zerbitzuan.

OSKORRI

Emakumearen Askatasuna

Gaur egun, emakumearen askatasuna, bakoitzak bere ikuspegi pertsonaletik aztertzen dituen problematarik bat dugu. Hori, noski, egiazko soluzio baten kontra doa, zeren eta orduan geure interesei kalte egiten ez dien soluzioa onhartzeko baitugu bakarrik. Zera esan nahi dut, alegia,* gizonak berekoikeriaz eta emakumeak masokismoz (ez beti, Jainkoari esker) ez dutela benetako irtenbide bat nahi, erresponsabilitatearen karga beren gain ez hartzearen.

Soluzioetarik bat, gizona eta emakumea buruz buru ipintzean datza:* *woman power*-a *man power*-aren aurka, USAko burrukalari arrazistek egiten duten antzera (*black power* eta *white power* elkarren kontra).

Batzuek pentsatzen dute, egiazko soluzioa litzatekeela, gizonak gure sistemaren duen situazio berezia emakumeak ere lortzea. Ene ustez, oker daude. Entzun dezagun emakume amerikar baten esana: «Ez dugu zuekin berdindu nahi, zuek ere libre ez zaretelako. Zer esan nahi du zuen mailara irixtea?» Emakumearen askatasunak liberazio oso bat eskatzen du, famili egitura* berri bat, haur heziketa benetako bat, emakume-gizon erlazio sendo bat, gizartea hankaz gora irauliz».

Liberazioak emakumea «bera» osa* dadin suposatzen du, haren nortasuna askatasunean molda dadin, gizon-emakume bikoteak, elkar osaturik, liberazio sozial eta pertsonal bat lor* dezan.

Emakumea, beraz, munduaren sortzaile bezala onhartu behar dugu. Ikuspegi honetatik, gizon-emakume erlazioa ez dugu sujetu-objetu bezala hartuko, sujetu-sujetu bezala baizik.

«Sasi-Batasuna» = Sasi-Zientzia

«Sasi-batasuna». López-Mendizábal, Tolosa, 1972, 43 pages. Violent pamphlet contre la lettre H et les essais actuels d'unification du basque littéraire proposés par l'Académie de la langue basque: il risque même de faire tort à des arguments valables».

«Gure Herria» Uztaritzeko aldizkariak, 1972.eko abenduko alean, aipamen hau egiten dio Labaien jaunaren liburuari. Frantses pixka bat dakienak, erraz uler dezake lantxoaren muina: senetik* irtenda iharduten duenak, hanka sartzen duela berehala, eta zientziarekin bat ezin duela egin.

Euskal antzerkiari hainbeste lan eman dion gizona, nola eror* daiteke leize horretara? Hizkuntzalaritza saillean jakitun bat behar norbaitzuek, eta okerreko iturrira jo zuten nonbait buruzagi bila! Berak sinets, besteek «dopa», eta zientziaren aurrean euskaltzain bat honda.

AMAITERMIN

dezake, daike
dio, deutso

Ametsezko irudi honen aurrez aurre, gizonagan oin-harrituriko biolentziako ordena dakusagu.* Bizitzaren alderdi guztietan agertzen da biolentzia: sozial arloan, ekonomikoan, kulturean, eta abar. Muldworf doktoreak «Sexualidad y Feminidad» deritzan liburuan honela dio: «Gizonak emakumea zapaltzea, gizona gizonaz zapaltzearen tankera bat da».

Bestalde, egun,* gizonen arteko harremanak kosifikaturik daude, materializaturik. Gizarte kapitalistak ez du giza zoriona bilatzen, ez eta giza osaketa ere, probetxua, merkatu jokoa baino. Egoera honen ondorio bat, Muldworf ustez, erotismoaren korapiloa da. «Mendebaldeko* munduaren erotismoak, emakumea merkantzia bezala hartzen du oinharritzat». «Prostituzioak —emakumeak sufritzen duen ekonomi zapalketaren ispilu— giza gorputza ukatzen du eta giza animalikeria goratzen». Eta guk, hori zergatik gertatzen den esan genezake: Gizona gizon bezala ukatua izan delako eta objetuen mundura jaurtikia.

Marxismo ortodoxoak biolentzia honen deuseztatzea* errealitate ekonomikoaren aldaketan espero du. Nik, ekonomi aldaketaren balioa eta garrantzia ahanzi* gabe, pertsonen arteko maitasunezko eta zerbitzuzko harreman berrien bitartez sinesten dut aldaketaren posibilitatean, nahiz eta ekonomiaren aldaketa beharrezkoa izan, baina pertsonaren aldaketarekin lotua.

Baina kontuz! Heziketa- eta kultur egitura bat, jo eta ke emakumea gizartean integratu nahiz (gaingiroki* bederen*) ari zaikun bitartean, emakumearen mitoak zutik dirau, haren lilurazko maitasunekin, haren txatxukeriarekin.* Emakumearen askatasuna ezin lor daiteke, hura* produkzio egituraren sartuz edo eta haren soldata gehituz. Emakumeak pertsona bezala liberatu behar du bere burua, eta honela gizartea ere askatu.

XABIER PORTU

daude, dagoz
dezagun, daigun
dezan, daian

die, deutse
genezake, geinke
zaiku, jaku, zaigu

OPORRALDIAK
Tren, untzi eta hegazkin
txartelak

Ezkonberri bidaiak
Arazo bidaiak

VIAJES
ECUADOR

Xofer gabeko automobil alokatuak
«BILBOKO BIDAI AGENTZIA»
Arriagako Plazan, 1 — Tel. 242468

... Zuen zerbitzutan

(G. A. T. n.º 68)

Lepazuria eta lepahoria (7)

Orozko* aitonaren urteak direla eta, apirileko lehen igande honetan bertara joan da Eneko bere etxeko guztiekin. Aitonari zorionak eman deitsoez, eta berau ezin pozago egon da horregatik. Gerotxoago, amak eta izebak* amonari bazkaria prestatzen laguntzen deitsoen artean, Eneko aitonarekin eta osaba Martinekin joan da, baserri inguruak ikustera.

— Gauza bat dot zuri erakusteko, txotxo —**dinotso aitonak irribarrez**. Ba nekian, gaur etorriko zinela; eta horrexegatik bizirik gorde deitso.

— Zer da, aitona?

— Oraintxe ikusiko dozu. Zatoz enekin.

Aitonak oilategi ondora daroaz biak, eta bertan dagoen patin* siku bat erakusten deitso.

— Horra hor! Dirudianez, azpiko iturria orain beste nonbaitetik doa; eta patin hau aspaldion agorturik dago. Herenegun goizean, oiloei pentsua jaten ematera nentorrela, zaratatxo bat entzun neban hor. Eta zer da kontua, eta hara! piztia hori ikusi neban. Antza denez, oiloen usainera honaino etorri eta ustekabeen patinera erori* zan. Haren zorionerako, ez eukan urik; bestela, bertan itoko zan.

Enekok zerbait ikusi eban barruan, patin agorraren sakonean: begi dirdiratsi bi.

— Eta zer da hori, aitona?

— Ez dakusazu zuk, ba**?

— Bai, baina zelan* dau izena piztia horrek?

— Hara! —**hasi zan aitona**. Ez nago oso seguru, hemendik kolorea ondo ikusten ez jako eta; baina nik neuk lepazuri bat dala egingo* neuke.

— Bai, lepazuria da, aita —**baieztu eban osaba Martinek**. Lepahoria ez dira etxe inguruetaraino inoiz etortzen; basoan ibiltzen dira.

— Ni horretan nengoen, ba —**esan eban aitonak**. Zer? Ausartuko zinateke hortik ateratzera? Nah! badozu, zaku bat emango deitso, barruan sartuta kanpora atera daizun. Ba ditut hemen oilo kaiola huts batzuk; eta, gura badozu, holako batetara sartu daikezu.

Esan eta egin. Osaba Martin, soka bati oraturik,* patin barrura sartu zan, eta kontuz kontuz lepazuria zakuratzea lortu eban. Gero, handik irtenda,* aitonak ekarritako kaiola metalezko batetara sartu eban.

Lepazuria hantxe ibili zan, ihes egiteko ahaleginez; baina azkenean, ekanduta* edo, kantoi batetan gelditu jaken bere begi beltz dirdiratsuez adi adi.

—Ez da gose izango, osaba? —**itaundu* eutson Enekok**. Hor patinean hiru egunez baraurik egon bada, jateko gogo itzela* euki beharko dau, ez dozu uste?

— Bai, arrazoia dozu, Eneko —**dinotso aitonak**. Zoaz etxeko sukaldera eta ekaruz handik oilo tripa batzuk*; gaur, jateko, oilo edo oilasko batzuk egongo dira eta.

Holaxe egin dau Enekok, eta lepazuriari oilo buru eta tripa batzuk pasatzen deitso kalolaren alanbreetatik zehar. Bai arin jan ere piztia!

— Ikusazu, osaba: bai gose zala, e!?

— Bai, eta ez da harritzekoa, hiru egunetan jan barik* egonez.

— Osaba, konta eidazu lepazuriaren bizitza.

— Bai, konta eiguzu, nik ere pozik entzungo deitso eta —**dinotso aitonak ere, poltsikotik bere pipa zaharra ateraz**.

— Lepazuria mendietan bizi izaten da, baina baserri inguruetaraino ere etortzen da batzuetan. Honetan ez da lepahoria baizen bildurtia.

— Zelakoa da, ba, lepahoria, osaba?

— Lepazuria lakoa; balna ilea,* grisa barik, gorriska dau, eta askoz ere finagoa, dirdira polit batez. Paparra, izenak berak dionenez, lepazuriak zuria dau eta lepahoria, oster,* horia. Handitasunean biak antzekoak dira; handitxoagoa, beharbada, lepahoria. Etxeko karu bat baino txikiagoak biak, hala eta guztiz ere. Buztana, azeriaren antzera, iletsu iletsu dabe biek.

— Baina izena txarto dauka. Lepoa ez da paparra.

— Hara! Bizkaian lepoa sorbaldari* esaten deitso; baina beste euskal eskualdeetan,* berriz, oraino samari* esaten deitso horrela. Beraz, lepoa eta sama gauza bera dira.

Baina bihurtu gaitezen geure piztiatxoagana. Bai lepazuria eta bai lepahoria oihanetako* animalietatik bizi dira: erbiak, saguak, ur arratoiak, sugeak, xoriak, xorikumeak, habietako arraultzeak, igelak,* matxinsaltoa,* kakarraldoak* eta basafritu ondo helduak (mazuztak, marrubiak,* basaranak...). Ahal dabenean, gainera, ezta ere jaten dabe, mendiko pago zulatueta dagozen erleei ohostuz.*

— Bai azkarrak direla! Erleei ezta kentzeko ere!

— Lepahoria eta lepazuria oso bizkorak dira. Zuhaitzetatik, abarrik abar salto eginez, lurretik bezain arin ibiltzen dira; eta lepahoria, hain zuzen ere, katagorri* asko harrapatzen ditu zuhaitz gainetan, bertan jateko.

— Eta ez dabe eurek batere areriorik*?

— Bai, bat bakarra: gizona. Lepahoriaren larrua oso fina da, eta, horregatik, andreentzako soingaineko dotoreak egiteko, oso estimatua. Hori dala eta, gure basoetan, Nafarroan batez ere, asko harrapatzen dira tranpaz.

Lepazuria ez da hain estimatua izaten; baina batzuetan oilategi eta usategietara egiten dituan bisita kaltegarriengatik, nabaritu* bezain agudo* hil egiten dabe. Egiten dauan kaltea, baina, ez da horrenbestekoa izaten.



— Ez! Horretan arrazoia dozu —**dino halako batetan aitonak, pipa ezipainetatik kenduz**. Hemendik ez dogu inoiz holakorik etxeraino etortzen ikusi. Arratoiak, esate batez, askoz ere kalte handiagoa egiten deuskue oilategian, horrek baino. Niri, egia esan, pena ematen deitso berau hiltzeak, ez pentsa.

— Orduan, askatu geinke, aitona?

— Bai, hobeto! Doala basora. Gainera gaur, ene urteak izanez, ez dot gura inor triste egoterik; eta horrek ere, mendian, semeak eta eukiko ditu seguru asko. Bai, zabaldu eiozu atea, Martin.

— Hobe izango da arratsean askatzea, iluntzean, ingurutik ehiztaririk* ibiliko ez dan orduan. Gainera, etxeko andreei ere erakutsi behar deitso.

— Ederto, osaba. Amari asko gustatuko jako. Eta... zein sasoi-tan egiten ditue honeek kumeak?

— Sasoi honetan, apirilaren azkenean edo maiatzaren hasieran. Gehienez lauzpabost kume ekartzen ditue mundura; eta habia zuhaitz zulo batetan egiten dabe, basoan ondo gorderik.

— Eta zeintzuk izen ditue erdaraz?

— Lepazuria gaztelaniaz **garduña** edo **fuina** deitzen dabe, eta frantsesez, ordea, **fouine** (= fuin). Lepahoriari gaztelaniaz **marta** eta frantsesez **martre** (= martr) esaten deitso. Zientzi izenak, aldiz, **Martes foina** eta **Martes martes** dira.

— Ederto, oso ederto dago guzti hori, bai horixe! —**dinotse aitonak**. Baina orain goazen etxera bazkaltzera, ordua da eta.

— Goazen, ba!

TRAUKO

dabe, **dute**

daikezu, **dezakezu**

daizun, **dezazun**

dakusazu, **ikusen duzu**

daroaz, **daroatza (daramatza)**

deuskue, **deraukute**, digute

deust, **deraut**, dit

deutse, **die**

deutsegu, **diegu**

deutsoe, **diote**

deutsoez, **dizkiote**

deutsogu (deutsagu), **diogu**

deutsoz, **dizkio**

deitso, **derautzut**, dizut

dinotse, **diotse**, esaten die

dinotso, **diotsa**, esaten dio

eban, **zuen**

eidazu, **iezadazu**, ezaidazu

eiguzu, **iezaguzu**, ezaiguzu

eiozu, **iezozu**, ezaiozu

eukan, **zedudan**, zeukan

geinke, **genezake**

jaken, **zitzaien**

jako, **zaio**

neban, **nuen**

Herrigintzarako bide bila

Maiz* hitz egiten da praxia dela eta ez dela. Askotan, ordea, ez dakit, hitz honekiko kontzeptu garbirik ote dugun. Eta honetaz mintzatzeak, halabeharrez, herrigintzari lotzen gaitio,* praxiak hor baitu bere bizilekua.

Gizonarengan datza,* zernolako praxia hautatzea. Ez dugu gizon guztiok eskuarki* eredu* soil bat —indar eraginkor berbereko bat— izaten gizagintzarako. Bat baino gehiago dira haintzat har daitezkeenak, hastapen* eta jomuga bereziekin guztiak; zeren* eta, errealitatea nork ikusmariatzen duen eta nondik begiratzen den, hala izanen baita ondorenez jokabidea ere.

Besterik gabe, eta laburki bederen,* aipa ditzadan topa daitezkeen hiru praxi mota:

- errepikatzailea
- imitatzailea
- berritzailea

a) Errepikatzaile den batek, denok dakigun bezala, joera kaltegarri batera garamatza. Zeren eta, egingo litzatekeen herrigintza, aspaldidanik obratu zenaren antzekoa izanen baita, hots,* iragan den ziklo batekoa, aldiari aldikoari atxikiz* erantzun beharrean. Jadanik* egokitzen ez zaigun giza egoerari erro ustelduak bilatzea da seguruen.

Ba da joera honetarako ohiturarik, euskaldunok tartean garela. Eta jakingarri ere ba da zertxobait honi buruz esatea, kontuan baldin baditugu, egungo planteamolden artean aurki daitezkeen kontraesanak. Segur naiz, majezgi ez dugula elkar konprenitu gure modura pen-

tsatzen ez dutenekin, gehienbatetan arrazoiak termino desberdinetan nahasirik kontrajarri bide* direlako.

b) Ezin daiteke aitor, Euskal Herrian, besteak beste, imitatzailearen arauera* jokatzeko ez denik. Ezer gutti berririk eta interesgarririk sor lezake ibilbide horrek. Izan ere, bide horretan dabilzanek beste herrietako giza mugimenduei zilegi* ez den heinean* so* egiten diete, urrats markatueta berenak utzirik, aurrez urratu* bideari jarraikirik eta beste giza egoera berezi bat duen herria bortxaz eskutik erabiliz. Horrela, herri konkretu horri, zuen nortasun jatorra murrizten diote.

c) Berritzailea ez da berritzaile, berrikerian amiltzearren,* aitzitik* giza beharrek eraginik baizik. Ez da berritzaile arlo batzuen arauera, osorik baino: goi eta behe egiturak aldagai hartzen ditu, arazoetan funtsezko denari azkarrenik helduz. Praxi mota honetan, ideiak, hots, teoriak ekintza hertsiki* besarkatzen du. Gauzak ez doaz burutazio hutsez gidaturik, ez eta, halaber,* materialismoaren edo idealismoaren gurpil* bakarreko organ* sarturik. Aitzitik, gizartearen osagarri diren sail guztiak premia gorrienen arauera baldintzapetuz, baina inoiz ere ez bata gestearen gain jarriz.

JOSE M. ODRIUZOLA

diete, **deutsee**
diote, **deutsoe**
ditzadan, **daidazan**

garamatza, **garoaz**
lezake, **leike**
zaigu, **jaku**, zaiku



Banko batetik espero duzun baino askoz gehiago eskaintzen dautzugu.

Hala ere, oraindik gutti dela uste dugu.

Hona hemen, emakumearentzat eskaintzen dugun zenbait zerbitzu. Haietarik batzuk ez dira berriak. Baina denek dute berezitasun bat: emakumea haintzat hartzen dutela.

Hau kontuan harturik, Banko barruan bertan bulego batzuk muntatu ditugu, neskak espezializatu batzuen ardurapean daudenak.

Eta dena egin dugu, gure gizartean emakumeak lortu duen aurreramenak harrotzen gaituelako. Honela, geure oneritzia eta mirespena erakusten diegu bai etxeko andreei eta bai emakume soilei.

Gaurko emakumeak ba daki zer nahi duen eta bere gurariak nola lor ditzakeen. Zerbitzu hauen bidez geure eskerrona erakutsi nahi diegu, eta geure laguntza eskaini.



Cheques Plegado



Cheques de Viajero



Cuentas Corrientes



Domesticación de Recibos



Libretas de Ahorro



Atención a la Mujer



Corras y Transferencias



Opciones de Crédito



Banco de la Mujer

Banco de Bilbao


Banko honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu



EUSKALDUN RH-DUNEN UMORE ORRIA



Patxi



HAU DUK UMOREA!

Arabiar merkataria batek turista erosle bati:

- Hara, jauna! Begira nolako pitxar ederrak ditudan.
- Zenbat balio du horrek? —turistak, bat seinalatuz.
- Horrek? Hori oso fina da; kobrerik onenaz moldatutakoa duzu. Eskuz landua, gainera. Zuri, bi mila pezeta utziko nizuke.
- Bi mila pezeta horregatik nik ordain? Burutik zauden gizona. Ehun pezeta emanen nizuke, ez gehiago.
- Ehun pezeta kobrezko pitxar fin horregatik? —ihardetsi* zuen arabiarrek zerura begira. Ai Allah! Zer egingen diogu, ba? Ederki, jauna, zuretzat da.

GOGOETAK

- Agure baten ilusioa, ilusiorik ba duela jakitea.
- Politika egiten jakiteko, beharrezko dira bi gauza; bata, hitz egiten badizute, ez entzutea; eta bestea, ixilean badaude, orduan bai, entzun dezakezu.
- Zakur bat ohartu zenean noren lagun hoberena izan behar zuen, bera otso* bihurtu zen.
- Gaur egun ez da gizona, galtzak daramatzen guztia.
- Bekatua odolki bat bezalakoa da: itxura xarrekoa, baina gozoa.
- Kapitalista batentzat kapitala zein da? ...dirua. Sozialista batentzat? ...Marxen liburu bat eta...

XOXOA



Patxi



GURUTZEGRAMA (18)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2				█						█
3						█			█	
4				█				█		
5	█				█					
6		█		█						
7						█				
8	█						█		█	
9					█	█				
10		█						█		

Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Esperimentuak egiten diren lekua.—2. Guztia. Ezeztatu.—3. Konfesatu (alderantziz eta infinitiboan). Kasik. Bokala.—4. Nire. Izenorde pertsonala (aktiboan). Nota musikala (alderantziz).—5. Azpigarriztat erabiltzen den landarea. Feria.—6. Bokala. Bokala. Burutu (pluralean).—7. Ukan aditzaren forma. Izan aditzaren forma.—8. Baserriko aberea (artikuluarekin). Bokala. Kontsonantea.—9. Ibai edo erreka gaineko bidea (alderantziz). Jausi (infinitiboan).—10. Kontsonantea. Hila ez dena (alderantziz eta artikuluarekin). Lorea (errepikatuz).


Goitik behera: 1. Lilia. Ukan aditzaren forma (alderantziz). Zenbakia (alderantziz).—2. Nonbaitera (alderantziz). Adostasuna adierazteko erabiltzen den hitza (alderantziz).—3. Indartsua (artikuluarekin).—4. Bokala. Bokala. Bokala. Laga, abandonatu.—5. Umea (alderantziz). Zalan-tza adierazteko erabiltzen den hitza (alderantziz). Kontsonantea.—6. Giza gorotza (alderantziz eta errepikatuz). Materia (alderantziz). Bokala. Bokala.—7. Ukan aditzaren presenteko forma (alderantziz). Kontsonante baten izena (alderantziz).—8. Esaldiak lotzeko erabiltzen den berba. Deklinabideko atzizkia (alderantziz).—9. Izenorde pertsonala. Beste leku batetik norberegianatu (infinitiboan). Gauz egiten dugu (alderantziz).—10. Bokala. Ekar erazi.

AZALPENAK: Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Laborategi. 2. Oro. Ukatu.—3. Aitor. Ia. E.—4. Ene. Hik. Re.—5. Ira («irail»). Azoka.—6. U. E. Eginak.—7. Ditut. Dira.—8. As-toa. A. R.—9. Zubi. Eror.—10. B. Bizia. Lili.

Goitik behera: Lore. Du. Bi.—2. Inora. Bai.—3. Bote-retsua.—4. O. I. A. Utzi.—5. Haur. Ore. Z.—6. Kaka. Gai. A. I.—7. Dizkiat. Be.—8. Eta. Raino («etxe-raino»).—9. Gu. Ekar. Lo.—10. I. Erakarri.

HIEROGLYFIKOA

E OHARRA



E

Zer gertatu zaiku?

EUSKAL SALDA

T A O S U K A K R A
 Z I A T E L E M I X
 E R U B A E L R E P
 K R O K O K R Z A Z
 O U R A N O S P O I
 T N E A G K P A N L
 A I Z I N O R U A G
 E X R L E A E N G U
 P A G U B I R E O N
 M U Z E T U D T K O

Goiko koadro horretan zazpi intsekturen izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYFIKOAREN ERANTZUNA:

Erre zarete

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNA:

Ximeleta,* marigorria,* arkakusoa,* erlea, eulia, xi-nurria, kokoa.

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

- ABURU, eritzi, uste.
 ADOS, konforme.
 AGIAN, beharbada, nonbait, seguramete.
 AGUDO, laster, arin.
 AHANTZ, olvidar. (AHANTZI, ahantzu, ahaztu, olvidado).
 AHORRATU, aurreztatu, épargné.
 AINA, adina, beste, bezainbat.
 AINTZINAGO, aurrerago.
 AIPATZEAN, al mencionar. (AIPATZERAKOAN, al ir a mencionar).
 AITZITIK, al contrario.
 ALABAINA, hala ere.
 ALDA, cambiar. (ALDATU, cambiado).
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.
 ALEGIA, a saber, es decir, esto es.
 ALOR, ario, campo.
 AMILTZE, precipitarse.
 ANITZ, asko.
 ARAUERA, arabera, según, conforme.
 ARE, hasta, incluso, aún.
 AREAGO, oraindik gehiago.
 ARERIO, etsai, enemigo, contrario.
 ARESTIAN, berriki, oraintsu, aurtemein.
 ARIAN ARIAN, astiro astiro, emeki emeki.
 ARITU, ari izan, ihardun.
 ARKAKUSO, pulga, puce.
 ARRAS, guttiz, oso.
 ARRETA, ardua, atención, cuidado.
 ARRO, cuenca, bassin.
 ASKI, nahiko.
 AT, kanpo, landa, lekora, fuera.
 ATEKA, ate hustua, hestutasun.
 ATSHOTITZ, refrán.
 ATXEKITU, atxiki, adherido, pegado, dependiente.
 ATXIKI, atenerse, adherirse, depender.
 AUKERA, abagadune, era, ereti, parada, ocasión.
 AURRETIAZ, aldez aurretik.
 AURREZKI, ahorro, épargne.
 AXOLA, ardua.
 AXOLATU, arduratu.
 AZTARREN, aztarna, arrasto, rastro, vestigio.
- BA, bada, pues.
 BARAZKI, ortuari, hortaliza.
 BARIK, gabe.
 BATIK BAT, batez ere, bereziki.
 BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).
 BEDEREN, gutienez, behinik behin.
 BEHINGOAN, berehala.
 BEGIRAKUNE, atención.
 BEREGANATZE POLITIKO, política asimilacionista.
 BEZERO, cliente.
 BIDE, agian, beharbada, nonbait.
 BILAKATU, bihurtu.
 BILBE, trama.
 BORTITZ, azkar, indartsu. (Berba hau latinezko fortis hitzetik dator).
 BOZKATU, votado. (BOZKA, votar).
 BOZKETA, votación.
 BULEGO, oficina, bureau.
 BULEGOLARI, oficinista.
- DAGOENeko, honez gero.
 DAKUSAGU, ikusten dugu.
 DAKUSAGUN, ikus dezagun (dalgun).
 DASTATU, saboreado, degustado.
 DATEKE, da nonbait.
 DATZA, yace, está, consiste. (Etzan aditzaren forma).
 DAZAGUGU, ezagutzen dugu.
 DEUSEZTATZE, destruir, aniquillar.
 DIRATEKE, dira nonbait.
 DOHAINIK, dohan, doharik, urrurik, gratis.
 DOMU, capital de dinero.
- EDOZELAN, nolanañi.
 EGIN, apostar, parier.
 EGITEAN, al hacer. (EGITERAKOAN, al ir a hacer).
 EGITURA, estructura.
 EGUN, gaur.
 EHIZTARI, cazador, chasseur.
 EI, omen.
- EKIN, Aditz hau intransitibo bezala erabiltzen zuten klasikoeak. Gaur egun, malzago^o usatzen da transitibo legez^o: ekin zioten. Berdin gertatzen da jarraitu aditzarekin).
- EKANDU, acostumbrado, hecho a. (Berba hau asko erabiltzen da Bizkaian. Kanpotar hau herrira ekandu da = este forastero se ha integrado al país).
 ERABAT, guttiz, zeharo.
 ERAKUNDE, organismo, institución.
 ERDIETS, lor, conseguir. (ERDIETSI, lortu, conseguido).
 EREDU, modelo.
 ERITASUN, gaixotasun.
 EROR, caer, tomler. (ERORI, caído, tombé).
 ERREMOLATXA, betarraba.
 ERRESUMA, reino, royaume. (ERREINU, reinado, rène).
 ESEKI, eskegi, colgado, suspendu.
 ESKUALDE, comarca.
 ESKUARKI, generalmente.
 EZKUTU, escondido, oculto, caché.
- FUNTS, fondo, fundamento.
- GABE, barik, en vez de, au lieu de.
 GAINGIROKI, superficialmente.
 GAITIO, gaitu norbaiti edo zerbaiti. (Honelako aditz formen kontra egon daiteke inor?).
 GANGAR, cresta, crête.
 GANTZ, grasa sólida.
 GARAMATZATE, garamazkite, garoez, eramaten (eroaten) gaitzute.
 GINO, hein, arau.
 GISA, modu, era; bezala.
 GORABEHERA, a pesar de, malgré.
 GORDAILU, gordeleku.
 GORTE, corte.
 GOZAMEN, usufructo.
 GURIN, mantequilla, beurre.
 GURPIL, burpil, rueda, roue.
- HALABER, igualmente, así mismo.
 HABAKIN, carnicero, boucher.
 HARTZEKE, hartu gabe.
 HASTAPEN, principio.
 HAUk, honeek. (Hauék aktibo, hauk pasibo).
 HEDATZE, zabaltze.
 HEIN, grado, medida.
 HERTSI, hetsi, hitxi.
 HERTSIKI, hestuki.
 HEZETASUN, humedad, humidité.
 HEZIERA, educación.
 HILDO, surco, sillón.
 HOIK, horik, horreek. (Hoiek aktibo, hoik pasibo).
 HONANTZA, honantz, honuntz(a), honat, hunat.
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).
 HOTS, a saber, es decir, esto es.
 HURA, ha.
- IDAZKARI, secretario.
 IGEL, rana, grenouille.
 IGORRI, bidali, bidaldun.
 IHARDETSI, erantzun.
 ILE, ule.
 IKERTU, aztertu, arakatu.
 INGURUAK, Hitz honek azentua darama, singularrean dagoela adierazteko.
 IRITXI, heldu, ailegatu.
 IRIXTE, heltze, aliegatze.
 IRTEN, urten, atera, jalgi.
 ITAUNDU, galdetu.
 ITZEL, enorme, espantoso. (ITZAL, sombra, ombre).
 IZEBA, izeko.
- JADANIK, ya.
 JARRERA, postura, actitud.
 JASAN, aguantar, soportar.
 JAZOTZE, gertatze.
 JITE, indole, genio.
- KABUZ, buruz. (Berba hau latinezko caput hitzetik dator).
 KAKARRALDO, escarabajo, scarabée.
 KATAGORRI, ardilla, écureuil.
- KOIBE, grasa derretida, grasse fondue.
 KOLKA, clueca, couveuse.
 KONTSIDERO, kontsiderazio.
- LANTURU, lamento.
 LAR, larregi, gehiegi, sobera.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LEHIATU, afanado, empeñado, porfiado, zélé, appliqué.
 LEIHATILA, ventanilla, guichet.
 LEKUKO, testigu.
 LOR, erdiets, lograr, conseguir (LORTU, erdietsi, logrado, conseguido).
- MAIZ, sarri
 MAMURTU, masticado, reflexionado, mâché, réfléchi.
 MARIGORRI, coccinela.
 MARRUBI, mailuki, fresa, fraise.
 MATXINSALTO, saltamontes, sauterelle.
 MENDEBALDE, mendebal alde, occidente.
 MENTURA, aventura.
 MINTZO IZAN, mintzatu, berba egin.
 MO-DATU, moldatutako, moldaturiko, moldaturikako.
 MUSKARIA, Tutera, Tudela.
- NABARI, evidente, notorio, patente.
 NABARITZE, notar, percibir, sentir.
- OHIZKO, habitual.
 OHOSTU, lapurtu, ebatsi.
 OIHAN, baso.
 OIHUZTATU, oihukatu, dicho con voz fuerte.
 OMEN, ei.
 ORATU, heldu, agarrado. (ORHATU, amasado, forjado).
 ORDEZKATZE, sustituir, suplantar.
 ORGA, gurdí, burdí, carro.
 ORO HAR, en conjunto.
 OROIGARRI, oroigarri. (Ene ustez, hobe litzateke eus-kara batuan oroigarri erabiltzea. Oroit + garri = oroigarri; gogait + gara = baikara; eta abar eta abar).
 OROZKO, Bizkaiko herria.
 OSA, completar, perfeccionar. (OSATU, completado, perfeccionado).
 OSTERA, ordea, berriz, aldiz.
 OSTERANTZEKO, distinto, diferente, diverso.
 OTSO, lobo, loup.
- PANPINA, muñeco, poupée.
 PATIN, pozo artesiano, cisterna.
 PIKOTA, picota (antiguo instrumento de suplicio).
 PIKOTARA JOAN, ir al traste, ir a la nada.
 PORROKATU, despedazado, desmenuzado, émiétté.
- SAMA, cuello, cou.
 SEN, juicio, estado normal.
 SOBERA, gehiegi, larregi.
 SO DAGIO, so egiten dio, begiratzen dio (deutso).
 SO EGITE, begiratze, behatze.
 SORBALDA, hombro, épaule.
 SORO, solo.
- TANKERA, estilo.
 TXATXUKERIA, frivolidad, fatuidad.
- UDAL, municipio.
 UKAN, izan (Ukan aktibo, izan pasibo).
 URRRA, rasgar, desgarrar, déchirer. (URRATU, rasgado, déchiré).
 URRATU, urratutako, urraturiko, urraturikako.
 URTARRIL, enero, janvier.
 USU, maiz, sarri.
 UZTA, cosecha, récolte.
- XARMANT, zoragarri.
 XIMELETA, mariposa, papillon.
 XUME, humilde, sencillo.
- ZARATEKE, zara nonbait.
 ZAURTU, zauritu. (Hala erabiltzen dute klasikoeak).
 ZELAN, nola.
 ZEREN (ETA), ze, pues.
 ZILEGI, lícito.

PHYSIKAZKO LEHEN EUSKAL LIBURUA

Artikulu honetan, fisikazko lehen euskal liburua aztertu gura nuke. Ene eritziz, gure aurretik egin diren lanetan oinharritu behar ditugu geure pausoak; eta horregatik, ondo etorriko zaiku liburu hau aztertzea. Era honetara, liburuaren alderdi onak eta xarrak ikusiko ditugu, eta argiago ikusiko dugu nolako bideetatik abia gaitezkeen.

Liburuaren izenburua PISIA da, eta egilearen izena Gabirel Jauregi. Liburuak 1935. urtean argitaratu zen, eta haren orrialdeetan zehar Physika Jenerala aztertzen da. Gainera, sarrera gisa,* egilearen hiztegi teknikoari buruzko eritziak azaltzen dira.

Sarrera elkar hizketaren tankeran* dago egina. Ikasle berria eta Pisia mintzatzen dira, eta zati batean honela diotsate elkarri:

— Orduan, euk asmau dok emen esaten doan geuztia?

— Ez, gizona. Nire aurretik beste askok be gauza oneik esan joezak; baina euskeraz neu nok etorriko diranen anai nagusia.

Ikusten dugunez, Jauregik, lehen euskal physika idazlea deneko kontzientzia du. Kontzientzia hau ukanik, bide berri bat urratu behar duela ikusten du, eta sarreran bertan hau diosku:

«Eukeldunei euskeraz idazteko gatzen etorten jakuna, auxe dok: gauza guztiak esateko itz zarrak ez eukitea, eta dagozan guztiak ez jakitea. Baña itxaron apur baten. Aldi gitxi barru, gure gaztediak erdera baño euskera obeto irakurri, idatzi ta itz egingo jok; eta orduan ikusiko dok, euskal itz barriak atonduten ibilli gareanon aintza norañokoa izango dan. Eta egun ori laster jatorkuk.

Gazteak nai izatea baño eztok bear; eta gaztediak gura jok:

**Laster dator eguna;
sorkaldetik agiri da
argi gozo biguna:
bere aurrean bildurtuta,
igesi doa illuna.**

Nire okerrak, nire ostean datorzenak zuzenduko joezak».

Jauregiren nahia ez da oraindik bete, baina haren izena behintzat aipatua izanen da gure denborotan.

Hala ere, hark esaten duen bezala, okerrak zuzentzen saiatuko gara. Euskal egiturak* ikusirik, asko ikasi beharko genuke Jauregirengan. Baina hiztegia ikusirik, ene eritziz, bestelakoa da kontua.

Azter dezagun, erabiltzen duen hiztegia. Ehuneko lau-rogel eta hamabost bat hitz, hark asmatuak. Baina hitz hauetan multzo bi egin genitzake:

a) hitz batzuek hizkuntzaren jite* eta bizitzarekin bat egiten dute, eta horregatik behingoan* ulertzeko modukoak dira, eta, beraz, erabilgarriak. Adibidez:

**aldakaitz
aldakor
igurtzi
gogortasun**

b) beste hitz batzuk, zoritxarrez gehienak, egilearen asmaketa hutsak dira, batere zehaztasun zientifikorik ez dutenak.

Beraz, baztergarriak. Adibidez:

igikunizti	= mekhanika
izti	= zientzia
beroki	= kaloria
buzkin	= motore
tximispide	= elektrodo
tximist-salakin	= elektroskopio

Honelako hitzak erabiltzen dituenek gero, ulergaitza da liburuak. Beharbada, sasoi hartan liburu hori Euskal Herri osoan erabilia izan balitz, gaur egun Herriak bereganatzen ukanen zituzkeen hitz horik.* Hainbat kausarengatik, ordea, gaur egun ez ditugu hitz horik erabiltzen.

GAURQO EGOERA

Liburu honetan jarraitzen den bidea ikusirik, aurrera joan baino lehenago, gaur egungo egoera aztertuko dugu. Jauregi lar* optimista agertzen zaiku sarreran, zeren* oraindik euskal gazteriak hobeto erabiltzen baitu erdara euskara baino, eta oraino hura aurkitu zèn puntuan aurkitzen garelako.

Ez ote da galdetu behar, gai garen ala ez, Jauregik egin nahi zuen hiztegia egiteko? Ene eritziz, ez gara gai horretarako. Eta gehiago esanen dut: Inongo hizkuntza ez da gai, berak bakarrik hiztegi tekniko osoa sortzeko. Hizkuntzen arteko harremanak geroago eta handiagoak dira; eta harreman hauetan, elkarren kutsua hartzen dute hizkuntzek. Hizkuntza bateko zientzizonek ezin ditza-kete zientzia guztietan pauso aurreratuenak eman; eta zehaztasun zientifikoa beste hizkuntzetako berbak hartza bortxatzen ditu.

Gaur egun, goi mailako bideetan abiatzeko, hiruzpalau hizkuntza erabili behar dituzte zientzizonek. Hizkuntza hauen artean, desberdinatsun bi nabaritzen* dira: batetik egitura desberdinak eta bestetik hitzen fonetika desberdina. Hala ere, berdintasun batera jotzen da: hitzen orthographiaren batasunera.

Joera hau ikusirik, bide berbera aipatuko dut, gure kasuan erabiltzeko: Sar gaitezen hizkuntza modernoan dinamikan. Gorde ditzagun geure egituratze eta hitzen fonetika bereziak; baina gorde dezagun ere hitz teknikoan orthographia ia unibertsala.

ONDORIOAK

Jauregik hartu zuen bidean, lehen eratara moldatu* hitzak erabiliko nituzke, baina bigarrenak baztertuko. Hauen orde hitz tekniko ia unibertsalak erabiliko nituzke, orthographia zainduz.

Era honetara eginez, ez dugu oztopo gehiegirik ukanen, edozein gai tekniko euskaraz erabiltzeko. Eta hau xe da, ene ustez, jarraitu behar den bidea.

J. R. ETXEBARRIA

diosku, **dinosku**, esaten digu
diotsate, **dinotsoe**, esaten diote
ditzagun, **daiguzan**
ditzakete, **daikeez**
genitzake, **geinkez**
jaku, **zaiku**, zaigu

jatorkuk (diatorkiguk), **datorkigu**
joezak (zitate), **dituzte**
jok (zik), **du**
zaiku, **jaku**, zaigu
zituzkeen, **eukezan**